

'Gatazkak konpontzea eta gazteekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzea negoziatzea' ikastaroaren balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiak 2023ko formakuntza planeko bi ikastaro antolatu ditu maiatzean

'Gatazkak konpontzea eta gazteekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzea negoziatzea' ikastaroaren bi edizio antolatu ditu Gazteen Euskal Behatokiak maiatzean. Formazio honen helburu nagusia honako hau izan da: bertaratutakoek gazteekin eta haien ingurunearekin aplikatzaketen estrategiak ikastea.


Ikastaroak **Sara Gonzalez Murok** eman ditu. Psikologo psikoterapeuta, bitartekaria eta hezitzailea. GEUZeko kidea (Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroa).

43 lagunek partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilekin:

- % 50 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Beste % 50 gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.

Ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

Ikastaroaren balorazioa (batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta